



## “Gizarte mediokre batean bizi gara”

Iñaki Azkuna | Medikua

San Balendin egun batez sortu zela sinestea ere...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

**Bilbo “Bilbao” denetik askoz hobeki doa mundua.** Ez dakigu “Bilbo” euskara, gaztelera, edo hibrido arraro bat den. Utz dezagun “Bilbao”, eta suposatu dezagun euskara dela.

**Zure euskara mailak liluratuta nauka.**

Euskara da nire ama hizkuntza. Galdu nuen arren nire buruan dago, eta hil aurretik berreskuratu nahi nuke. Gaur egungo politikari batek derrigorrez jakin behar luke euskaraz.

**Egia izango da Egibar eta zu alderdi berekoak zaretela!**

Batzuei sinesgaitza zaien arren, hala da. Biak gara abertzaleak, biek sinisten dugu euskal nazio eta aberrian, eta hortik aurrera... Uler-tuko duzunez 68 urterekin ez daukat aldatzeko asmorik. Errenkarnazioan, agian...

**68 urte, adin ederra... erretiratzeko.**

Frankismoan, Bilbaoko alkatetzan hamasei urte eman zituen batek. Nik marka hori demokrazian hautsi nahiko nuke. Ilusiorik falta ez zaidanez, herritarrek jubilatzen nauten ikusi nahi dut. Txarto iruditzen?

**Politikariak oso gaizki baloratuta zaudetela iruditzen zait niri.**

Politikan, jakintzaren beste adar batzuetan bezala, jende mediokre asko dabilelako da hori. Urrezko aroak ezagutu ditugu baina gizarte mediokre batean bizi gara.

**Hori da hori autokritika egitea!**

Jaurlaritzan nengoenean ez neukan gaur jen-

dearekin daukadan tratua %10a, Madrilen banengo ez nuke %1a ere izango, eta Europan ez duzu hiritarrik ikusten bizitza guztian. Hori hala, ez diotsut dena ondo egin dudarik, gaizki zer egin dudanez ez galdetzeko baizik.

**Haxe da konpartsei buruz hitz egiteko unea, beraz?**

Jaietan jaia egin behar da, ez politika. Hori hala den artean denak ados gaude eta ez dago arazorik.

**Jakina, zuk txosnekin egiten duzuna ez da politika.**

Eclesiastes-zalea bazara eta sortzea, haztea, eta ugaltzea politikan sartzen badituzu, bestela esango dizut. Ez dezatela alderdikeriaz jokatu eta *politikilla*-rik egin. Gainontzean, asteazkenean atsedean hartzea primeran iruditu zitzaidan. Ostegunean indartsuago zeuden.

**Katalunian zezenketak debekatzen dituen legea *politikilla* da zuretzat?**

Nik ez dut inoren kontra egingo, Bilbaoko zezenketen alde baizik. Sekulako tradizioa dago, sekulako aberastasuna da hiriarentzat, eta ez dut jairik irudikatzen zezenketarik gabe. Oso zaila da lege horrekin amaitzea.

**Ai, ai, ai... Mentalitateak Bilbao bezain arin aldatuko balira...**

Itsasadarrari bizkarra ematetik itsasadarrarekin bizitzera pasa garenetik, etxeko oinetakoekin atera daiteke paseatzera. Ez zegoen besterik, eraldatu ala hil. ■